

Larunbat honetan ehunka pertsonek Errontegiko eskolaren 50.urteurrena ospatu zuten. 50 urte hauetan eskolatik pasa diren belaunaldi guztietako ikasle eta irakasle ohiek parte hartu zuten. Eguna txupinazo eta martxa batekin hasi zen. Martxaren helburua eskolarentzako aterpe eta jantokia eskatzea izan zen. Ondoren kalejira bat egon zen auzoan zehar eta herri bazkaria. Arratsaldean disko besta eta Holi jaia egin zuten, eskolako patioa koloreztatuz. Atzoko jaialdiarekin, ikasturteko ekimen handiena izan arren, ez dira bukatu urteurreneko ekimenak eta datozen aste eta hilabeteetan ekimen gehiago egongo dira.

alt=""
swfobject.embedSWF('http://www.youtube.com/v/n5-MiKVGQao','avreloaded0','400','320','9.0.28','/plugins/content/avreloaded/expressinstall.swf',
{autoplay:'0',color1:'0xFFFFFF',color2:'0x000000',rel:'0',egm:'0',border:'0',loop:'0'},{wmode:'window',bgcolor:'#FFFFFF',menu:'true'},{id:'p_avreloaded0',styleclass:'allvideos'});